

Bideari ekin Kristoren atzetik

"Esan nahiz egin daizuen guztia, egizue Jesus Jaunaren izenean"
(Kol 3, 17)

Esker ona Eleizbarrutiaren izenean

Agur bero bat Bizkaiko Eleizbarrutia osatzen dozuen anai eta arreba guztioi. Itzi eidazue, beste ezer baino lehen, urte honetan eta aurrekoan, batzuetan eginahalak eginez eta inguruabar gaxetan, Eleizaren bizitzari eta honek fedeari eta gizarteari hainbat alderditan –ospakizuna, katekesia, konpromisoa pandemiak gogorren astindu dituan gizataldeen alde, arreba nagusi eta gaixoei...- eskaintzen deusan zerbitzuari eutsi deusazuenoi aparteko esker ona adierazoten. Gogoz eta sormenez egin dozue gure erantzunak batzuegan etsipena eta zelanbaiteko paralisia eragin dauan egoera gaxari egokitzeko. Eskerrik asko zuon adore eta eskuzabaltasunagaitik. Gomuta berezia senide eta lagunak galdu dozuegan familiei eta, osasuna eta zeuon buruaren osotasunaren aurkako mehatxua sentitu eta bakardadearen pisua jasanezin bihurtzeraino, bakartasun luzea jasan behar izan dozuen guztioi.

Eleiz jardueri gogoz eta konfiantzaz berrekin

Kurtso barriaren hasieran, dei egiten deusuet, ahal dan neurrian, Eukaristia ospakizunetan eta ebanjelizazioaren edozein alderditako alkarte lankidetzan jardun daigun barriro be. Ebanjelioa etorri eta poztasun da eguneroko bizitzan eta eragile adoretzu zailtasunei konfiantzaz aurre egin behar deutsegunean. Azken hilabeteotan, bai profesionalengandik eta bai gertukoengandik be, laguntasuna, babesa eta zainketak jaso doguzala sentitzen dogunok batera jarri daikegu orain jasotako guztiaren zati bat, beste hainbat anai eta arreba kontsolatuz eta sendotuz.

Munduko sinodoa: "Sinodo-sena dauan Eleizaren alde: alkartasuna, partaidetza eta misinoa"

Kurtso barriaren hasieragaz batera, Eleizaren sinodo-senari buruzko mundu-mailako gogoetarako prozesua jarri da martxan. Frantzisko Aita Santuak dei egiten deusku ardurakidetasuna sendotu daigun gure alkarte bizitzan, prozesuan alkartasuna sustatu eta alkar aintzat hartu daigun. Sinodoaren "eleizbarrutiko aldia", zehaztuta dagoan mundu-mailako egutegiaren arabera, 2021-2022 kurtso barriaren lehenengo hiruhilekoan garatuko da. Ona litzateke Bilboko Eleizbarrutiak, bere berariazko historia eta sentsibilitatetik, Espainiako, Europako eta mundu osoko Eleizaren gogoetari ekarpena egitea. Prozesu hau pastoral barruti eta parroketan egin beharreko gainerako zereginak oztopatu barik antolatzen saiatuko gara.

Bikarioak eta Kontseiluak barritu, eta EEE barria eratu

Hainbat erantzukizun eta Kontseilu barritzea dagokigu. Ekainean argitaratu zan, Jainkoak lagun, abenduaren 3rako Bikario barriak izendatuta eukitea ekarriko deuskun egutegia. Ondoren, Abade eta Eleizbarrutiko Kontseiluak osatuko dira eta honeek 2022ko urtarrilean ekingo deutse jardunari. 2022an, gainera, pandemia dala-eta, eten egin genduan Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmo barriaren lanketa eta prestaketari helduko deusagu barriro.

Guztiok gara bidelagun (synodoi)

Pastoral ekiturte barriaren hasieran, indar eta itxaropena antzeman dodaz askorengan. Lehenengo urratsak ez dira nahiko izaten helburua lortzeko, baina oraingo egoeratik atara egiten gaitue behintzat. Denpora behar dogu beste batzukaz batera eraikitzeko. Beti da motelagoa, baina osagarritasun horretan, bakarka sekula ikusiko ez geunkezan gauzak ikusten doguz.

Ekin deiogun bideari, segurtasun larregi bilatu barik eta baldintza asko jarri barik. Begiratu deiogun Kristori eta joan gaitazan bere atzetik. Gure makaltasunaz jabetuta eta makina bat zailtasunez inguratuta egin daikegu. Bihotz-zabaltasunez eta konfiantzaz martxan jarrea, berez, fede eta maitasunezko ekintza da. Apurka-apurka, alkarte anitzean, gure bide-orria zehaztu eta argituko dogu. Guztiok gara ezinbesteko Kristorentzat. Uzta handia da eta jarduera ebanjelizatzaileak ezin dau inor kanpoan itzi. Jesusen bihotzean dagoz idatzita gure izenak eta, gure hitz eta lekukotasunari esker, poz-iturri izan dogun eta lagun asko poztu leiken Barri On hori jaso leikien hareenak be. Nire aldetik, zuon otoitza izango dodalakoan nago, apurka-apurka, gotzain ona izan naiten zuen artean.

Maria Birjinaren jaiotza 2021/9/8

+ Joseba Segura
Bilboko Gotzaina